

XUKAKO ADITZ JOSKERA LUZAIDEKO MINTZAIRAN

Jose Maria SATRUSTEGI

Denbora txarra zen Ibañetan lehenbiziko aldiz Luzaidera abiatu nintzelarik. Gauez iritsi ginen 1955.ko urrian. Polizietara heltze hura, herrira sartzean, berri zen niretzat eta arrotz senditzen nintzen toki hartan. Bertako hizkuntza nuen, hala ere, oztoporik haundienā. Ex nien fitxik ulertzen, eta erdaraz egin behar izan zidaten. Gogotik itzuliko nintzen etxera, urzoen atzetik joanez; baina, han egoteko bialtzen ninduten.

Luzaide hitza ez nuen inoiz entzuna; erderaz Valcarlos zela ikasi nuen. Uren ixurketaz Iparraldekoa, Baionara doaz Ondarrola errekakoak. Ohitura eta festa giroan, garaztarrak, Donibane Garazira jotzen du jendeak astelehenetan. Hizkuntzaz berriz *manexak*.

Niri -*zuka* egiten zidaten denek, eta laster jabetu nintzen joskera honetaz; beren artean berriz -*xuka* ari ziren beti, eta abiada bizian. Nik ezin nien, gero eta gero ere, ezer asko ulertu. Niri ere horrela mintzatzeko esaten banien, «ez da polit erantzuten zidaten; mintzaira arrunta da hori, *bubame kutsua badu*.» Hori dela-ta, ez nuen behar bezala ikasi ahal izan, nahiz bederatzi urtez egon Luzaiden. Lagunek heuren artean -*ika* eta -*noka* hitzegi-ten dute.

Handik atera nintzelarik, 1964.ean, Urdiainera etortzeko, han nuen ostatuko etxeoandereak ere nirekin etortzeko deliberoa hartu zuen, eta biok aldatu ginen Burundara. Azkue zenaren laguntzaile izan zen gazte zelarik, Luzaideko baserri eta mendi zokoetan. Zenbait liburu izenpetu zizkion Euskaltzain buruak. Neuk dutan batean, honela esaten dio: «a la joven María Dolores Echeberria, de Valcarlos. Su discípulo, El Autor.»

Aita Donostiarri ere lagundi zion Luzaideko azterketa lanetan, eta Manezaundik bere etxean zuen ostatu. Haren esku izkribu eta beste zenbait puska berak erre zituen gerla denborako egoerak beharturik.

Maria Dolores Echeberriak eskutitz asko hartu eta idatzi du Urdianen den denboran. Gehienak gaztelaniaz eta frantzesez; baina euskaraz ere bai. Luzaidek, estate baterako, 345 gutun baditu bertako hizkuntzan altxatuak

eta, -xuka herrikoi garbian, trebetasunez idatziak. Gutun hauei esker ikasi dut nik joskera honen berri.

Gehienik agertzen diren izenak hauek dira : Anastasia Barzelona, 85 urte, Bidart baserriko etxeoanderea (129 gutun). Graziana Lapeire, Borderre, Ondarralakoa, 75 urte (74 gutun). Nizeta Paris, aurrekoaren alaba, (55). Maria Luisa Auzqui, Madaritz baserrikoña (44), 1971.eko uda partean hilak.

Azken aipatutako idazle honen hiru eskutitz aukeratu ditut agerpena egiteko. Erraztasun haundiarekin idazten du eta bertako euskara oso ongi daki. Urdiainen duen adiskideari beti -xuka zuzentzen zitzaion eta hiztegi aldetik ere merezi luke azterketa on bat geroago egitea.

Hona hemen, nik jasoak ditudan idazkietan berak egindako lehenbizioa:

«Valcarlos 7.10.64

M. D. maitia : Pensatzen dicit ingoitic arrunt berantetsia chirela chure letrain errepostia, bana espres egon nuchu, bainaquin bachtinila Luzaidetic berri frango. Beraz, aniz placer in ziachun chure letrac eta hain fite. Content nuchu boin unsa baitzizte, eta chu ere seur hemen bano tranquilo izain chira, eta bestalde holaco laun baten onduan.

Guc hemen betico bizi bera dichiu; hari guituchu beti lan bersutan, orai ilar biltzen, bizi qui dembora ederrac tichiu, ya tipitiac tichiu. Bauchu anitz ilar, holaco urte idorra izaiteco. Lusarrare arras buna, eta artuaque yuanden urtian bano hobiac, gure Yinco hunari esquerrac eman behar.

Izan nuchu Felipaquin Ferranenian bi egunez matalazen iten; unsa aipatia chitu. Igandian hemen guinichin C. bere emaztiaiquin, eta aita amequin. Gure yaun Ertorrac despeitu guitischi; bazuala etzuala, azquenian corropilua trencatu duchu...orai biac berriac izain tuchu; duaigue berdin balio baitu, orai arrosarioa beti españolez Elizan, bana echian Escuaraz iten baitu, gaurre gure Franchichac hala in baitu.

Erraiten dachu zer dion Goyenechiac zerratuak; nic seuric pasatziak beti soñoot iten diacobut. Borta hetsia duchu bana leioac ardura idequiac tuchu.

Beraz gaicho M. D. hamarrac eta erdia baduchu eta lo itea yuan nabia nuchu. Bibar Inesen ttanttain urte buria yuan beharro dichit, bartaco hari nuchu niaurec letrain sartzeko; 10-eco nabi niquechi horizan dain.

Gure iloba A-ac baichi muticoñoat; puchcat tiran izan, bana orai bizi qui polliqui.

Arren finitzen dicit buntan. Miliunca gorainziac hemain dazcochu D.J.M.-ri. Aniz oroitzten guuela. Eta chu besarcatzen chitut biotzez guelditzen nizalaric chure adichquide fidel neure bizi guzico. Maria Luisa Auzqui.

Urte horietako zonbait idazki ez genituen, noski, begiratu. Bakar batzu besterik ez ditugu aurkitzen. 1966.ean, bi urteren buruan egindako beste gutun bat emango dugu orain bere idazkeraz jabetzen joateko. Egunoroko bizitza eta artzainaren borroka berezia adierazten ditu. Etnografia gaia ere bada, beraz :

Luzaiden marchuain 4an, 1966

Gure adichquide maite M.D.: Horra bi ilaite bi egunengatic chure letra izanic. Nola pasatzen (den) denbora bestenaz! Beti oroitzen eta beti guibeleaf. Gaicho M.D. mehechi chinin lebeno errepostia, bana holacua bainiz ni!

Baziaquichut unsa ziztela batzuc eta bestec erranic. Gu ere, oro unsa guituchu Yincu hunari esquer.

Felicitazioniac emaiten baituchu rebañuaz, icus bacheineza gure M., beti ottoin ondotic, hura nora eta hau hara! Eta bera yuaiten duchu Andicoberrico bordan sartzea, eta ateatzea. Seur unsa baliatzen duchu! Nahio dichi sucaldia chabutu bano ba, nabiz burare iten din. Ez dichi gaichua maleziaic. Eta Erramune pentsatzen ahal duchu content dela, orai bere hogoi urrequin. Yakaiten ahal duchu horiengatic direla denac. Guc orai gua(u) rendaco en guiniquichi bolako tracasa beharric, nabiz chimune bola gustatzen den. Izigarri unsa duchu. Ez dichi berehala deliberatu, badaquichu, sos haundia eman behar delacoz; bana nic beti erraiten niacobun azindac beti eta gueyo balio dila. Berdin bola denac erosiz, mila bedera libera pagatu baititu, arras ez, echola barne : 84 ardi eta echola, 84 mila pezeta. Abanchu erdia pahatia dichiu, eta bestiaz ez guichi prisatzen, intresa pahatu eta, Bana Yincuac nahi badu, behar guiniquichi urte hunen undarreco pabatu. Behi bat saldu dichiu, 25 mila pezeta in dichiu eta echecho ttipienaiquin. Ardi zembaite saldu dichiu, ya balenetaic, zabarrac nahi izan baguintu saldu hautac bira mila pezeta emaiten ziacochuten; bana ez, hobenac echian.

Horra M.D. gure tratuko berriac chebequi. Orai achuri saltzen basico guituchu; ohono ez dichiu bate quenduic. 45 pezeta kilua hari duchu hemen. Ondoko egunetan yaquinren tuzie berriac chebequi.»

Hamabi orrialde baditu eskutitz honec, eta horietatic hiru hartu ditut nik hemen; gai bati dagozkionak, alegia. Berri guziak eman ondoan, azken lerroetan honela dio :

«Nique pasatu nichin chure letrain leitzen lana zieque bauzie bulta batendaco; eta ohono comprenitzen batuzie! Bana asqui tuzie ene buisac arranyatzia.»

Hirugarren eskutitza hil aintzineko hilabetean idatzi zuen, bere heritasun haundiaren berri ematen. Ebakuntza bat egina zuen ordurako, eta bularra

kendua. Neke guzien artetik, hara nola agertzen dituen bere gaitz eta gora beherak :

«Valcarlos 4 junio 1971

M.D.maitia : Hasten nuchu bi lerroin itenene berrien emaitseko eta dembora berian chure bi leiren errepostien iteko. Gaicho M.D., ni berrizze maltsio niochu; hartzen dicit pasaldi bat buna, bana conforme nuchu Yinco hunac hola nahi baitu, eta aitzinare barec nahi dina izan dailela.

Numbait osaileco edo Marchuain lebeneco botz baundi betan, senditu nichin operacione lecutic gauza droleat papoco bezurra yantzian hantu baliz bezala, eta hartaic emequi emequi bularra gohortu eta ezquerreco besuare escurano hantu, eta denac uder arrosa colore batzuz bete. Ene iduriko operacione lequia gaizcondu.

Yuan ninduchun medicura, denbora berian ene doloriac yauzi baitzien, bana nic uste oro infecciónetic heldu zien, eta mediquiac bereala berriz operatzia, beste bularrain kentzia. Eta ereman nindichin prestasius neure arropequin, bere ustez han gelditzeko. Bana icusi nindineco doctorrac, guizon charmanta, Hospitalian «que tenía una inflamación muy grande, nada de intervenciones; aún a lo mejor alguna radioterapia.»

Bi Radiografia atera ziazquiachuten eta tratamendu bat ezarri diachute, eta orai iduri dichi hobequi nizala. Operazionian lecutic basi duchu supuratzetan eta hobequi causitzen dicit neure buria; bana ohono nic uste luze izain den, bana beden ez dicit sofrizten. Ez dicit ohoitu nahi zer sofritu dutan. Apetitiare heldu duchu emequi emequi. Gure bi nechcatuec, gaichuec, izigarri duchu nola portatzen hari dien..., eta ni gaizua, zer iduritzan zauzie bolako palizac gure Yinco hunac zendaco? Duaique mehechi tualacoz.

Asqui aseatzen hari baichitus mota huntaic, erran behar dauchutus bizi qui denbora lazua eta buna dula, bana casic egun guziz euria iten dichi hortzanz erauntsia. Arto aniz bazuchun ohono ereiteko; orai hari tuchu. Guc jorratzeko prest dichiu denbora seurtatzen badu. Belarrare prest baichie. Aizan tuchu echetat jipabide iten, eta lanac guielatu.

Echandirat in homen dichie charmanta lehengo beretic eta Bidonduan goiti Puticoineano, Barberainbordako bortano charmenta, eta Pecochetako eche guzitak. Mariaurrenate bortano. Orai gaiñeco carreteratic Paisian behiti, behereco carretera yuntatu behaichi. Turburian bat Paisano ina dichie. Andicoberric Paisoko eche pecaldiai bat in dichi otobidria gaineko echeano, eta echetic gobiti larre bartan alimaleko penze pusca in dichi.

Horiec guziac, ganetic ecarri dichie mecanica pala baundi bat, bana orai mecanican averia zeait bautela, guelditia duchu. Orai Paisetic

*carretera sartzia beldur tuchu, aniz peña baita eta carreteran lanyer orai
abiatiac turistac azcar, hain seur Diputacioniac beharco dichi hari,
beste gaineaticuac auzolanian in baituzte.*

*Bueno M.D. gaizua, beharco dicit finitu hari bainiz puchcat
eneatzen. Franchibac behar diachu cura in. Milaka gorainziac
D.J.M-ri gure bien partez.*

*Chimon obonore lotsatia duchu ene min hunec. Atzo erraisten
ziachun zer ote zen hau; bana hunec emequi emequi izain baita.
Icustecua zuchun ano colore batian zoin itsusia zen. Bana Franchecha-
que erraisten diachu egunetic egunea arrosa coloretzen hari dela obono;
ene papua eta bularra gohor tuchu obono.*

Besaratzan chitut biotzer gure partez. Maria Luisa y Simon.

Iturri ona dugu eskutitz hauen, hain gutxi ezagutua den xukako aditzaren erabilkeria aztertzeko. Oraiko lana adibidetzat hartutako ezaugarri xumea besterik ez da. Gutun bilduma osoaren ikerlana izango litzateke gerorako helburua.

Hiru idazki hauetan agertzen diren xukako aditz formak sailkatuko ditut orain.

I. ADITZ LAGUNTZAILE IRAGANGAITZA

N O R

Nuchu:

Loitea yuan nahia nuchu
Donianeat ez nuchu ardura yuaiten
Bana espres egon nuchu
Hartaco hari nuchu, niaurec letrain sartzeco.

Niochu:

Ni berrize maltso niochu.

Chira:

Eta chu ere seur hemen bano tranquilo izain chira.

Chirela:

Pensatzen dicit ingoitic arrunt berantetsia chirela.

Duchu:

Campua azcarqui piztu duchu
Yaquiten ahal duchu horiengatic direla denac
Seur unsa baliatzen duchu
Bizi qui content homen duchu
Azquenian corropiloa trencatu duchu.

Bauchu:

Bauchu anitz ilar.

Baduchu:

Ya eguerdi duchu
Hamarrac eta erdia baduchu.

Guituchu:

Pasatzen guituchu hura gabe
Ibili guituchu bi astez bilcuretan
Guere oro unsa guituchu Yinco hunari esquer
Hari guituchu beti lan bersuetan
Orai unsa guituchu denac.

Tuchu:

Bahatziac eder tuchu
Content tuchu arrazoinequin
Oro egon tuchu eri
Unsa tuchu
Seur kontent tuchu
Beldur tuchu
Leioac ardura idequiac tuchu.

Chu:

Bost haurren ama eta amachi chu.

Ninduchun:

Urthas ingurian izan ninduchun.
Yuan ninduchun medicura.

Zuchun:

Mediquiac ohian ezarri dielaic, haurra bezala nigarrez aizan homen zuchun
Asqui penatia zuchun gu izan ginelaic.

Etchuchun:

Etchuchun yende anitz.

Guinchun:

Yuan den igandian Rafaelenian guinchun.

Zichun:

B.A. eta A.Z. hamazazpian zichun espos
Gure echian denac comitatiac zichun ni salu, ni gaichtua bainiz!

Zuquechun:

Aniz balio zina zuquechun.

Ziacochu:

Juanitoril hil ziacochu echechoandere chaharra.

Ziechu:

Heldu ziechu C.

II. ADITZ LAGUNTZAILE IRAGANKORRA

Dichit:

Pensatzen dicit ingoitic arrunt berantetsia chirela chure letrain errepostzia

Yuan beharco dicit.

Behaichit:

Bueno M.D. behaichit finitu.

Bebaichi:

Lehengo carretera yuntatu behaichi.

Dichi:

Iduri dichi gelditu dela (eritasuna)

Zerbait icasten dichi eta irahaztene ba

Nahio dichi sukaldia chahutu bano

Franchichac seguitzen dichi ba beti L-nian!

Baichi:

Iloba A-ak baichi muticoñoat.

Dichiu:

Icusten dichiu beti ta azcarro datzila

Guc hemen betico bizi bera dichiu

artoac..guc yorratzeco prest dichiu.

Baichiu:

Baichiu prediquia.

Ezdichiu:

Achuriac ohono ezdichiu quenduic bizi qui.

Dichie:

Haurra bizi qui moñoña dichie

M.P.Barcelona igorri dichie clinica zenbaiteta enfermera

Han homen dichie echia aniz urte huntan fornitzten dutena.

Baichie:

Baichie bizitzeko manera pollita

Bi haurrequi baichie lanare

belárrare prest baichie

Tichit:

Icusten tichit.

Baituchu:

Felicitacioniac emaiten baituchu.

Baitu (u):

Bana echian escuaraz iten baitu (guk).

Baitu:

Gaurre hala in baitu (berak).

Tichiu:

Orai bizi qui denbora onac tichiu
Hemen izan tichiu ezteyac.

Tichi:

Puchcat behar bano gorahoño hartzen tichi.

Tichie:

Saltzeco duzten guziac Miarrizteat maiten tichie
Yende gutiquin inen tichie orai lanak
Nic uste esperancha tichie nechcatuain aita amac.

Chitut:

Eta chu besarcatzen chitut biotzez.

Baichitut:

Asqui aseatzen (aseazten) hari baichitut.

Chitu (u):

Ferraneian bi egunez matalazen iten unsa aipatia chitu(u).

Guitichi:

Gure yaun Ertorrac despeitu guitichi.

Ziachu:

Iduritzen ziachu chuc galdein guzien errepontia eguin dauchutala.

Diaochut:

Nic seuric pasatzian beti soño bat iten diacochut.

Diechut:

Nic pensatia diechut (gizonei) San José inguruau yuaitia.

Dachu:

Erñaiten dachu (zuk) zer dion Goyenechiac
Aniz plazer egin dachu berriac hain chehequi igortziaz.

Diachu:

Erran diachu gorainziac erraiteco haren partez Franchechac behar diachu
cura in.

Diachute:

Tratamendu bat ezar diachute.

Dazkocbu:

Miliunca gorainziac hemain dazcochu.

Diacochute:

Anaiec erosi diacochute galtza pundu biltzeko mecanica.

Diauzquichute:

Bichcochac ecarri diauzquichute (Haiiek guri)

Eman diauzquichute (apezek) liburiac zier bezala bana Baionan inac.

Niquechi:

10-eco nahi niquechi hor izan dain.

Guiniquichi:

Behar guiniquichi urte hunen undarreco pahatu.

Bachinea:

Icus bachineza gure M.beti ottoin ondotic hura nora eta hau hara!

Nindichin:

Ereman nindichin prestatuic neure arropequin.

Nichin:

Nique pasatia nichin

Hotz haundietan sènditu nichin.

Chinin:

Mehechi chinin leheno errepostia.

Arrangura duchu (bera) paqueta izan chinin. Galdetu bai chinin..

Chinila:

Chuque epistola luzia igortzen chinila, nic uste ez dutan laburrocua.

Bachinila:

Bainaquin bachinila.

Zichin:

Escuz arrotu nahi zichin (matalaza).

Guinichin:

Igandian hemen guinichin C.

Egun goizian lehenbiziko meza escuaraz guinichin.

Guinchin:

Icusi guinchin unsa bazterrac.

Zichun:

Misioniac unsa pasatu zichun.

Zichien:

Echian zichien bazkaria.

Ziazquiachuten:

Bi radiografia atera ziazquiachuten (Niri).

Niacochun:

Nic beti erraiten niacochun.

III. ADITZ TRINKOA

Eredutzat hartutako hiru eskutitz hauetan, hain ezaugarri laburra izanik, badira zenbait aditz trinko edo sintetikoaren forma ere.

J A K I N

Badiaquichut, ez diaquichut:
ez diaquichut zerendaco.

Baziaquichut:
baziaquichut unsa ziztela.

Badaquichia:
badaquichia yendiac zer dion?

Diaquichu:
Ohono ez diaquichu.

Badaquichu:
Badaquichu, sos haundia eman behar delacoz.

J O A N

Baniachu:
Orai baniachu lo itea.

Ziachun:
Gaizo guizona aisa ziachun ba aspaldian guieleat.
«Bazuala etzuala, azquenian corropilua trencatu duchu».

E R R A N

Erracochu:
Erracochu D.J.M-ri errecibi guinila haren letra.

Dion:
Badaquichia yendiac zer dion?

Diocchu:
Veterinarioac diocchu «que es vasquilla» (ardien gaitza).

Ziochun:
Joaquinac ziochun.

E D U K I

Baduquechu:
Bana hora yuanique baduquechu beste norbait seguituko denic.

IV. BESTE BEREIZTASUN ZONBAIT

Izernorde eta laguntzaileak. Aditza *xuka* darabiltenek, izenorde eta pertsonei dagozkien laguntzaileak ere gisa berean ahozkatzen dituzte: Eta *chu* ere seur hemen bano tranquilo izain *chira*. Beraz aniz plazer in *ziacobun chure* letrac.

Aditza, izenordea eta laguntzailea sartuak dira amaierako agur honetan: Eta *chu* besarcatzen *chitut* biotzez guelditzen nizelaric *chure* adisquide fidel neure bizi guzico.

Ch letraren aboskatzeaz. Batzutan doinu leuna du *ch* letrak, eta beste batzutan gogorra, Luzaideko mintzaira arruntean: ikusi nichin (nixin); Mehechi chinin, mehexi xinin, e.a., lehenbiziko eran. Aldiz, gogorra da honako aipamen honetan: Yuan den igandian Rafaelenian guinchun (gintxun).

Bakarkako solasetan gehienetan *x* ahoskatzen dute; eta askoren solasa bada *tx*: «Kontent etorri *zuchun* (*zuxun*)», bat baldin bada. «Kontent etorri *zichun* (*zitzun*)», bat baino geihiago izanez. «B.A. eta A.Z. hamazazpian *zichun* (*zitzun*) espos.»

Bertze / beste. Luzaiden, *hortz, bertze, ortzirale, ortzantz* erabili ohi delarik, gutun hauen idazleak *beste* dakar gehienetan. Esan dezagun amaitzeko, Maria Luisa Auzqui 1971ean hila dela eta berrogeita lau eskutitz utzi zituela.

SUMMARY

The familiar treatment in the conjugation of the basque verb, in Luzaide as well as in the zone of Donibane Garazi, presents the form *-xuka* which is the most used in the common language. It isn't a substitutive of the *-noka* or *-iketa* used in areas more limited of the amity circles.

The *-xuka* treatment has a pejorative valuation between the people of Luzaide, like if it was a language with an inferior dignity characteristic of the gipsy people. Therefore they don't use it neither with the visitors nor with the people representing for them authority or any type of dignity.

The report we show is taken from a collection of letters coming from Luzaide and written by elderly people who usually use this modality, for what their writings represent a spontaneous testimony of an indubitable interest.

Three letters have been analyzed of a totality of 345 catalogued, until now. They have taken like point of reference to Mrs. M.^a Luisa Auzqui, dead in 1971. One of the authoress, Anastasia Barcelona aged 84, has written until now 129, which belong to this collection.

RESUMEN

El tratamiento familiar en la conjugación del verbo vasco, tanto en Valcarlos como en la zona de San Juan Pie de Puerto, presenta la forma *-xuka* que es la más utilizada en el lenguaje ordinario. No se trata de un sustitutivo del *-noka* o *iketa* usado en áreas más restringidas de los círculos de amistad.

El tratamiento *-xuka* tiene valoración peyorativa entre los valcarlinos, como si se tratara de un lenguaje de rango inferior propio de gitanos. Por esta razón, no utilizan

con los visitantes ni con personas que representan para ellos autoridad o cualquier tipo de dignidad.

El avance que exponemos está tomado de una colección de cartas procedentes de Valcarlos y redactadas por personas mayores que habitualmente utilizan esa modalidad, por lo que sus escritos representan un testimonio espontáneo de indudable interés.

Se han analizado tres cartas, de un total de 345 catalogadas hasta la fecha. Se ha tomado como punto de referencia a doña M.^a Luisa Auzqui, fallecida en 1971. Una de las autoras, Anastasia Barcelona, de 84 años, lleva escritas hasta la fecha 129, pertenecientes a esta colección.

RÉSUMÉ

Le traitement familier dans la conjugaison du verbe basque à Luzaide autant qu'à la zone de St. Jean de Pied de Port, présente la forme *-xuka* que c'est la plus utilisée dans la langue ordinaire. Ce n'est pas un substitutif du *-noka* ou *-iketa* usé dans des aires plus limitées des cercles d'amitié.

Le traitement *-xuka* a une valorisation péjorative entre les gens de Luzaide, comme si c'était une langue d'une catégorie inférieure propre des bohémiens. Par ainsi, ils n'usent pas cette langue avec les visiteurs ni avec les personnes qui représentent pour eux autorité ou quiconque type de dignité.

La communication que nous exposons est prise d'une collection de lettres provenant de Luzaide et redigées par des personnes agées que habituellement n'usent pas cette modalité, et c'est pour ça que leurs écrits représentent sentent un témoignage spontané d'un intérêt indubitable.

Trois lettres ont été analysées, d'une totalité de 345 cataloguées, justq'aujourd'hui. On a pris comme point de référence à Madame M.^a Luisa Auzqui, morte à 1971. Une des auteurs, Anastasia Barcelona âgée de 84 ans, a écrit jusqu'aujourd'hui 129, lesquelles appartiennent à cette collection.